



MAÑARI'TIK BELEN'ERA.-GABON-IPUÑA

Como un Belén esplendente, entre roca
y bosque el convento de Greccio.

Gau zoruntsu atan Zuriñe eritxon Mañari'ko neskatala, amalau urteko artzain neska samurra; bere artaldeko ardi zuri ederrak bilatzen artegatasunez urduri ibilli zan. Eta Mugarra'ko landa ederrean edur-artean sakanatuta aurkitzen ziran ardi kutunak txabolaratu ezin izan ebazalako, neskatalatxu zintzoak negar egiten eban.

Oñetan artzain neska arduratsuak goi-alde-
tik aize-zear etorririko abots legun gozo bat
entzun eban:

Aintza zeru goietan
Jaungoiko Altsuari
ta bake zoruna lurrean
gogo oneko gizonari.

Ta goi abesti eder orren soñu otsean, zeru zabaletik argi dizdizka gozoz ingurutua zalarik aingeru zuri eder bat agertu zan.

Zuriñe aingerua ikustean bildurrez jarri zan. Aingeruak baña, neskatalari arean be ez bildurtzeko esanaz, maitekiro itzegin eutsen:

—Artzain neskato ori, arean be ezaitz bildurtu, zeuri barri on-on bat emotera zerutik etorririko aingeru bat nazalako. Munduaren Salbatzalea, Jaungoiko gure Jauna, Judea erriak aspaldiz pozez itxaroten izan dabean Mesias aintzagarria, ontxe gabeko amabi-amabietan Belen deritxon erritxu politean giza-soñez lurreratu da. Neskatal garbi-garbi baten sabel garbian sortuta, aiataturiko errian jaio ta agertu da. Ori dala-ta, poztu zaitz ta poztu bedi lurbira guztia bere Askatzallearen oñetan. Jaungoikoaren gizonaganako errukia erri ta enda guztiak goratu ta txalotu begie... Zeuk bere txalotu ta goratu egizu ba. Ontxe bertan gauen ba Belen'era, Jaungoiko gizonduari bere

arpegi txikian laztan gozo bat emotera. Erdunegaz Zuriñe... Guazen.

Ta beste barik artzain gaztetxua esan eder orrekaz arrituta ta poztuta zalarik, Aingeruagaz batean Belenerantza abiau zan. Eta erriak eta mendiak aingeru-egaz zearkatuta, egunsentia baño lenago Belen errira eldu ziran.

Gau orretan erritxu ori zidar txipristiñez apaindurik agertzen zan. Edur zuriz ornidua zan. Iñoz baño politago ikusten zan.

Alako baten, erri ertzetik juanda, mendi egal batera urreratu ziran. Eta antxe mendi barranean txabola zar bat aurkitu eban. Zuriñe'ren ardi-txabolea baño bere txabola zarragoa zan.

Orduban Aingeruak Mañari'ko neskatala, bultzakada gozoa egiñaz, bertatik txabolaratu eban. Eta neskatalatxuak txabolearen barruan emakume zoragarri bat, itxura oneko gizon bat eta ume eder-eder bat ikusi ebazan. Umetxua, astoa ta idiaren arnasa be-roak artzen erdi billosik negarrez egoala oartu eban. Ori zala-ta bere biotza errukiz minberatua jarri zan.

Eta beste barik, Aingeruak Belen'era bi-dean irakatsi eutsen abesti polita, eskuak gurutzetuta ebazala itzalkiro abestu eban:

Umetxu maite, lora ederra
zeru lurraren jabea,
askatxo baten etzunik dago
Jaungoikoaren Semea,
gizon guztioi erakusteko
zeruetako bidea.

Abesti ori abestuta gero, Zuriñe'k umearen txirotasuna, ezeukitasuna ikusita negar egin eban, Andra Mariari itanduten eutsolarik:

—Ume zoragarri orrek negar zegaitik egiten dau?

—Neure kutuntxu onek gizonen gaiztokeriekaitik negar egiten dau —Andra Mariak erantzun eutson.

—Eta Ume maitagarri ori, Jaungoikoa izanik, otzez dardarka zegaitik dago?

—Gizonen biotzetan maitasunik aurkitu eztabelako, otzak mingarriro igituten dau nire Semea.

—Eta Ume eder-eder ori, zeru lurrazen jabea izanda, orren beartsu zegaitik agertzen da?

Ori entzunik, Andra Mariak, bere begi ederretatik maliko dizdiratsuak ixuriagaz, neskaitillatuari abegi onez erantzun eutson:

—Gizonak aberaskerien zoro-bitsetan itsutu ez daitezan, neure Semea, zeru lurrazen jabea izanik, etxe zar onetan ezeukitasunik latzenean agertzen da. Urre ta zidar gosez itsututa aurkitzen diran guztieri apaltasunaz zeru bidea erakusteko.

Eginiiko itaun berarizkoen erantzuna arturikoan, Zuriñe senetik urtenda lez Jaungoikoaren errukitasuna itz ederez goratuten asi zan. Eta Mesias aintzagariari oparirik ederrena egitekotan Mañari'tik Belen'eratu zala-ta, askatxuko Ume zoragarriari maitasunezko laztan gozoa orduantxe emotea erabagi eban. Eta Aingeruak esan eutson lez, bere eskuak biotz ganean iminita askatxuko Ume-Jaungoikoari bere arpegi txikian mosu gozo-gozoa egin eutson.

Ume samur aretan Umearen ezpan garbi-garbietan irribarre eztsua loratu zan. Eta Andra Mariak eta Jose deunak bere euren biotzetako eskar ona Zuriñe'ri abegi gozoz agertu eutsoen.

Orduan Zuriñe'k antxe txabola aretan Sendi deunagaz batean beti bizi izateko asmuu artu eban. Asmu ori azaltzean, Andra Mariak baña, neskaitillari eurakaz bizi iza-

teko lain kemen eta adorerik ez ebazala izango esanaz, itz maitakorrez erantzun eutson:

—Zeure asmu ta guramen onak pozez ikusten doguz... Jakineragiten dautsut baña, gure ondoan batera ta bestera ibilteko indarrik eztozula izango. Neke ta atsekabe askoren erditik ibili bearko garealako. Geu maite gozuzala ta geugaz, bizi bear zareala? Ondo dago! Orretarako baña, ez dozu ementxe geugaz egon bearrik... Ontxe laster emon-go dautzaguzan iru gauza maitetu ta bear dan lez zainduten badozuz... antxe Mugarra'ko landan zeure artaldea yaboten zabilzala bere, ementxe geugaz batean bizi izango baziña lez lurreko ordu ta egunak igaro al izango dozuz-ta.

Itzok amaitzeagaz batean, Andra Mariak biotzera eskua eroanaz larrosa eder bat emon eutson; garbitasunaren ezau-garria zan larrosa zuri-zuria. Ume Jaungoikoak barriz bere biotzeko maitasunik gozoenagaz arnasa eztsua ezpaneratuagaz, larrosa gorri eder bat sortu eban; maitasunezko larrosa bikaña zan. Eta larrosa ori artzain-neskatoaren biotzean betiko irarrita geratu zan. Eta Jose Deunak auts

koloreko lora illun eta maitagarri bat esku zabalez emonagaz, irugarren larrosea abegi onez eskubetaratu eutson. Apaltasunaren larrosea zan. Sari eder orreikaz artzaintxua pozez ezti-bitsetan jarri zan, Andra Mariaren esana egiteko gertu...

Gerotxoago larrosa eder-eder orreikaz poz-pozez zalari-rik, Zuriñe on-ona, Jaungoikoa leku guztietan egoala-ta, lengo Aingeruagaz batean barririo Mañari'ra etorri zan.

Eta ementxe Mugarra'ko landa ederrean Sendi deunari adi-adi zalari-rik, artzain bizitza apalean barrien barri jarritta, Euskalerrian Jesus'en barri onak zabaltzen ebazan artean Garbitasunaren, Jaunmaitasunaren ta Apaltasunaren larrosa ederrak bere biotzean maitekiro yaboten ebazalako, zorionsu bizi izan zan; iru birtute bikain orrek, berak alan gura-ta, Jesus, Maria ta Josegaz lokarri gozoz estutzen ebelako.

Udabarrietan barriz Zuriñe maitagarriak, ardi zurien atzetik bedar guri ganietan ebilan artean, bere begi urdiñak Sorkalderantza ebazalari-rik, abestirik ederrenak abots gozoz ta eresi eztsuz abestuten ebazan...

Larrosa bat, larrosa bi, iru larrosa
Belen'go txabolan eundaz larrosak;
Garbitasuna, Jaunmaitasuna, Apaltasuna
onoimenetan on bikañenak.

MAÑARIKO ERROSE

